

MEGRETISTEK EZ DUTE KANPORAKETA ONARTU, ETA APARATUA KONTROLPEAN DUTELA DIOTE

Megret eta bere aldekoak ofizialki kanporatu dituzte FNtik

Hiru asteko krisiaren ondoren, Bruno Megret eta haren aldeko sei burukide eskuin muturreko alderditik kanporatu dituzte. Le Peni beste arazo bat sortu zaio, 'Charlie Hebdo' astekari satirikoak FN marka izena kendu baitio ustekabeen.

Iker Aranburu / Donostia

JEAN MARIE LE PEN buru zuela, Fronte Nazionalako (FN) batzorde eragilea Saint Cloud-eko egoitzan bildu zen atzo, alderdiaren zatiketa behin betikoa dela erakusteko. Arratsalde erditsuan Bruno Gollnisch idazkari nagusiak azaldu zuenez, batzorde eragileak erabaki zuen espedientea irekita zuten zazpi burukideak alderditik kanporatzea, «leporatzen zaizkien hutsune larriengatik». Kanporatutakoak dira Bruno Megret oraintsu arte FNko ordezkari nagusia eta haren aliatuak, hots, Franck Timmermans, Serge Martinez, Philippe Olivier, Jean-Yves Le Gallou, Pierre Vial eta Daniel Simonpieri.

Gollnischek ziurtatu zuen FN ez zela «espainiar aterbe» bat eta hortaz, zigortu egingo zituztela ere Megretek batera alderdiaren ezohiko kongresu bat egin nahi zuten burukideak. Zigortuko dituzte, beraz, hilaren 13an, Parisen bilera sekretua egin zuten kongresua deitzeko.

Megretistak, ordea, ez ziren geldirik egon eta alderdiaren barruan duten indar handia erakutsi zuten. Serge Martinezek eta Jean Yves Le Gallou kanporatuek ezohiko kongresua egiteko dagoeneko 14.000 sinadura jaso dituztela ziurtatu zuten. Astelehen edo arratsaldean aurkeztuko dituzte ofizialki. FNren estatutuen arabera, nahikoa da mili-



Le Pen eta bere aldekoak, abenduaren 11n FNren egoitzan emandako prentsaurrekoan.

MICHEL GANGNE / EPA

tanteen % 20ak (40.000 dira guztira) kongresua eskatzea, baina megretistek % 30 eskuratu dituzte. Gainera, Martinezek ziurtatu zuen kongresua eskatzen dituztela 22 eskualdeetatik 17k, 63 departamenduk eta 11 eskualde-tako segurtasun taldeek (DPS).

Megretistek ziurtatu zuten beren kanporatzeak «baliorik gabekoak eta barregarriak» zirela eta «Moskuko prozesuaren antze-

ko horretan» parte hartzeari muzin egiten ziotela.

FNren izenaz jabetzeko borroka

Bi sektoreek beretzat aldarrikatzen dute FN izena, baina baliteke azkenean bietako inork ezin erabili ahal izatea. Izan ere, FNren kontra gogoz diharduen Charlie Hebdo astekari satirikoak kanporatu egin zen Le Penek ez zuela azken hamar urteetan

Front National marka beretzat eskatu eta hortaz, edozeinek erabil zeza keela. Horrela, Charlie Hebdo beretzat erregistratu du Industria Jabegoaren Institutu Nazionalan (INPI).

Gollnischek ziurtatu zuen atzo Charlie Hebdoren saioak porrot egingo duela eta haren aurka eta megretisten aurka egingo dutela auzitegietan izena kendu nahi badiete.

laburrean

■ Marseillan azken hilabeteetako 14. gaizkilea tirokatu dute

PAUL DEGENIS 43 urteko ohiko gaiztagina tiroz hil zuten astearte arratsaldean Marseillan, atzo Poliziak jakinarazi zuenez. Lehen ikerketen arabera, azken hilabeteetan Marseillako gaizkile munduan gertatzen ari diren borroken ondorioa da Degenisen hilketa. Poliziak aspaldi ezagutzen zuen biktima proxenetismoa eta gaizkile talde bateko kide izateagatik. Degenis autoan zihoan eta bere parean gerarazi ziren motor batetik bi lagunek tiro egin zioten dozana bat aldiz. Irailaren 11az geroztik gaiztagintza munduko 14 lagun hil dira horrela. X

■ Jean Claude Duvalierrek frantses auzitegi baten aurrean deklaratu beharko du

JEAN-CLAUDE DUVALIER Haitiko diktadore ohiak (1971-1986) Grasseko (Itsas Alpeak) auzitegi batean agertu beharko du datorren martxoaren 11an. Pikardiako eskualde kontseilari ekologista izandako Jacques Samynek aurkeztu du Bebe-Doc-en aurkako salaketa, «Frantzia legez kanpo egoteagatik». Samy-en aboikatuaren arabera, Duvalier paperik gabeko etorkin bat da orain Frantzia, sarritan ukatu baitiote babes politikoa. 1986an, haiarren matxina batek boteretik kanporatu zutenetik, Duvalier Frantzia bizi izan da, Gobernuak hala eskatuta. Agintari bere azterna galdu zuten 1997an, baina Paris inguruan jarraitzen duela esan dio astekari bati. Diktaduraren biktimek bere aurkako auzibidea ireki nahi dute, Espainian Augusto Pinochetekin egin duten antzera. X

■ Alcalako espetxetik ihes egindako hiru presoetatik bat atxilotu dute

IRAGAN abenduaren 12an Alcalá-Mecoko espetxetik (Madril) ihes egin zuen hiru presoetatik bat atxilotu zuen herenegun Espainiako Poliziak. Atzo zabaldu zuten, 20 urteko Sebastian Utrera Fernandez bere gurasoek Valde-mingomezten duten txaletean ezkatzen zen. X

■ Eskale bat jipoitu zuen 'skinhead' bat espetxeratu dute

BARTZELONAKO epaile batek espetxean sartu zuen atzo Enrique Riaza skinhead-a, hilaren 17an parke batean eskale jipoitzeaz akusatuta. Karguekin aske geratu dira beste bi uesteko erasotzaileak. Eskalea oso larri dago. X

◆ Anne Kerloc'h ◆ 'Charlie Hebdo' astekariko kazetaria

«Le Penek ostu izena berreskuratu dugu»

Jose Mari Pastor / Donostia

CHARLIE HEBDO-k eskuin muturreko alderdiaren izena bereganatzea ez da lapurretā izan, Anne Kerloc'h-en arabera. Astekari satirikoko kazetariak esan duenez, Fronte Nazionala, berez, II Mundu Gerrako erresistentzia talde baten izena zen. «Guk Le Penek ostu zuen izena berreskuratu dugu eta antifaxis-

ta talde horri bueltatuko diogu, arrazoa daukagula erabakitzen bada».

■ Zergatik eta nola jabetu zarete Le Penen alderdiaren izenaz?

Jakin genuen lepenistak Jabego Institutuan izen desberdinak jartzen ari zirela Megreti enbarazu egiteko honek sor lezakeen alderdi berriaren inguruan. Lan honetan Le Penen suhi Marechalek jardun du eta izenen artean Fidelité Nationale eta Rassemblement du Peuple zeuden, besteak beste. Xedea ezin argiagoa zen: Megreti bere alderdi propioa egitea oztopatzea, berak ere izen berriak beharko dituelako.

Guk lepenistek jarri nahi zituzten izenak bilatu nahi izan ditugu, besterik ez, ez dugu Fronte Nazionala izenaz deus gal-

detu. Baina hau bilatzen ari ginea, hara non konturatu garen izen hori ez zutela erregistratzen berriro ere jarri hamar urte pasatu eta gero. Orduan pentsatu egin dugu, «hau da gurea, tira aurrera!».

■ FNk berehala erreazionatu du ekintza hau «ilegitimoa» dela esanez, eta kereila jarri du. Zer egingo duzue?

Ilegitimoak haiek dira, ze Fronte Nazionala izena, berez, II Mundu Gerrako erresistentzia sare baten izena zen. Izan hori, beraz, antifaxistena zen, erresistentziako talde batena. Historikoki halakoxea da; Le Penek ez du izena asmatu, Le Penek izena ostu egin du. Orain sei aste dituzte Industri Jabegoaren Institutu Nazionalan errekurtsioa jartzeko. Baliteke institutuak

beraiei arrazoa ematea, oraindik ez dakigu zer gertatuko den kontua, juridikoki, korapilatsua baita. Institutuaren zerbitzu juridikoek erabaki beharko dute, sei asteko epea daukate. Guk ala haiek, zeinek erabili ahal izango duen izena, horixe da kontua. Artean, bada gauza bat, barrea eragiten diguna: Le Pen edo Megret, bietako zein da legitimoa izen horren jabetza erreibindikatu eta bereganatzeko?

■ Industri Jabegoaren Institutu Nazionalak marka edo izena zuena dela erabakiz gero, zer egingo duzue?

Izena gurea dela erabakitzen badute, faxismoari iharduki zion partisa talde horri bueltatuko diogu. Izena antifaxistei itzuliko diegu, beraiei neofaxista hauek kendu baitzieten lehenago. X

BILBAO BIZKAI UR PARTZUERGEOA
JAKINARAZTEN DIZUEGU
Gaur, osteguna 24, eta datorren osteguna 31, bulegoak jendearentzat itxita izango ditugula.